2014-X-14
Número **442.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela-sindikatua.eus

# astekaria

# EDITORIALA

## Lokarri

Gure herrian akordioa lortzeko eta giza eskubideen defentsaren jardunean aritu den Lokarrik iragarri berri du bukatutzat emango duela eragile gisa bere jarduna. Modu honetan Lokarrik, bere ibilbidea itxiko du bakearen eta bizikidetzaren aldeko herritar mugimendu bezala. Bere barne hausnarketari bide emanaz, betirako ez irauteko bokazioa zuen mugimenduak ondorioztatu du aro bat bukatu dela eta beste batean murgiltzen dela euskal gizartea. Lehenengoz, errespetu osoz begiratu behar diogu erabakiari, beren buruari ezarritako helburuak bete dituztelakoan daude –eta gu ere hala gaude–.

Herri honi bakea ekartzeko eginiko lana eta ekarpena, askotan isila, zuhurra eta zenbaitetan ulergaitza, paregabekoa izan da. Inork ukatuko ez duen testuinguru oso zailean egin behar izan du lana Lokarrik. Makina militanteren eskuzabaltasunez gure herrian bakearen ezaugarriak eta kultura, orohar, zabaltzen eta sustraitzen lagundu du bere sorreratik. Aipatu behar bere ibilbidean mugarri publikoak izan ziren Aieteko Konferentzia eta Sorturen estatutuen aurkezpenaz gain, horiek ahalbideratzeko esfortzu handiz ehuntzen joan diren bakearen aldeko sarea: nazioarteko eragileak, alderdietako partaideak, eragile sozialak, tartean ELA buru-belarri, eta herritarrak. Guzti horien engaiamendua, Lokarriren ekimen eraginkorraz, euskarri sendo bat izan da gurean bakea sustraitzeko eta elkarrizketa eta elkarulertze bideak jorratzeko.

Asko dugu denok Lokarriri aitortzeko eta eskertzeko. Gure organizazioak ere tratu zintzoa eta emankorra izan du Lokarrirekin, beti bakoitzak ordezkatzen duena errespetu handiz eta begirune osoz abiapuntu hartuta. Honek elkarrekiko leialtasuna eta konfiantza errotu du oparoa izan den aldebiko harremanean. Herri honetan motibazioa, konpromisoa, elkartasuna eta eskuzabaltasuna deklinatzen dakiten pertsonak eta organizazioak daudela erakutsi digu Lokarrik eta haren zordun gara denok. Urte hauetan bakearen aldeko lana egin duten Lokarriren militante eta bazkide nahiz kolaboratzaileei gure esker ona eta aitormena adierazi beharrean gaude. Gizalegezkoa delako eta merezi dutelako.

**Lankidetu!**

### ELA presenta la campaña del periodo concentrado de elecciones sindicales recalcando la importancia de la autonomía económica, sindical y política

# SEPTIEMBRE, UN MES MUY POSITIVO

ELA presentó el 6 de octubre la campaña del periodo concentrado de elecciones sindicales. Una campaña que tiene como principal argumento la autonomía económica, sindical y política que tiene nuestro sindicato. Una autonomía que es valorada por los miles y miles de trabajadores y trabajadoras que en todas las citas con las urnas depositan la papeleta de nuestro sindicato.

Estas próximas semanas el periodo concentrado de elecciones sindicales tomará un fuerte impulso; a partir de ahora cada vez serán más las empresas de Comité que celebren su proceso electoral. Tal y como recuerda Txema Laiseka, responsable de elecciones sindicales, durante el mes de septiembre y comienzos de octubre la práctica totalidad de elecciones corresponden a las PYMES.

Sin embargo, pese a estar todavía al comienzo de este largo proceso, Laiseka afirma que septiembre ha sido un mes muy positivo. "De los 291 delegados/as que se eligieron en septiembre en Hego Euskal Herria hemos conseguido 179, lo que supone un 61,51%. El resto –el 38,49%– han sido para CCOO –47 delegados/as–, LAB –35 delegados/as–, UGT –29 delegados/as– y 1 para lo que llamamos 'besteak' o sindicatos minoritarios–".

"De todas formas, hay que destacar que el proceso tiene diferentes ritmos según los territorios. Por ejemplo en Navarra apenas se eligieron 30 delegados/as en todo septiembre, de los que ELA logró 10, un 33,33%. En Navarra los meses más intensos son desde enero a mayo del 2015, por lo que estos meses el ritmo es menor si lo comparamos con la CAPV".

**Nota:** Los dos gráficos que acompañan esta información recogen tanto la representación actual de cada sindicato como el número de delegados y delegadas que se renuevan durante este periodo concentrado de elecciones sindicales. Unos gráficos que ayudan a entender los diferentes ritmos que tiene este periodo tanto por territorios como por meses.




| Eroritakoak/Caen 2014/09 2015/05 | Epealdi Trinkoa / Período concentrado | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ELA | LAB | CCOO | UGT | Besteak | Guztira Total |
| CAPV EAE | 3.951 | 2.087 | 1.789 | 1.135 | 1.117 | 10.079 |
| | 39,20% | 20,71% | 17,75% | 11,26% | 11,08% | |
| Nafarroa | 645 | 453 | 706 | 782 | 433 | 3.019 |
| | 21,36% | 15,00% | 23,39% | 25,90% | 14,34% | |
| Hego Euskal Herria | 4.596 | 2.540 | 2.495 | 1.917 | 1.550 | 13.098 |
| | 35,09% | 19,39% | 19,05% | 14,64% | 11,83% | |

**C.A.P.V. / E.A.E.**

| Total Guztira Delegado/as Ordezkariak 2014 Abuztua | A RENOVAR / ERORITAKOAK: Septiembre-Diciembre 2014 Iraila-Abendua | Enero-Mayo 2015 Urtarrila-Maiatza | TOTAL GUZTIRA | ELA Euskal Sindikatua: Delegado/as Ordezkariak 2014 Abuztua | A RENOVAR / ERORITAKOAK: Septiembre-Diciembre 2014 Iraila-Abendua | | Enero-Mayo 2015 Urtarrila-Maiatza | | TOTAL GUZTIRA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 18.549 | 6.401 | 3.678 | 10.079 | 7.349 | 2.846 | 44,46% | 1.105 | 30,04% | 3.951 | 39,20% |
| | 34,51% | 19,83% | 54,34% | | 38,73% | | 15,04% | | 53,76% | |

**NAFARROA**

| Total Guztira Delegado/as Ordezkariak 2014 Abuztua | A RENOVAR / ERORITAKOAK: Septiembre-Diciembre 2014 Iraila-Abendua | Enero-Mayo 2015 Urtarrila-Maiatza | TOTAL GUZTIRA | ELA Euskal Sindikatua: Delegado/as Ordezkariak 2014 Abuztua | A RENOVAR / ERORITAKOAK: Septiembre-Diciembre 2014 Iraila-Abendua | | Enero-Mayo 2015 Urtarrila-Maiatza | | TOTAL GUZTIRA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6.280 | 1.226 | 1.793 | 3.019 | 1.334 | 303 | 24,71% | 342 | 19,07% | 645 | 21,36% |
| | 19,52% | 28,55% | 48,07% | | 22,71% | | 25,64% | | 48,35% | |

### Las y los trabajadores de los centros de Iniciativa Social recuperan el convenio vigente

# "UN GRAN ACUERDO FRUTO DE LA LUCHA Y LA MOVILIZACIÓN"




**El fondo... y las formas. Es evidente que el fondo del acuerdo es muy importante. Al fin y al cabo se han conseguido todos los puntos que se plantearon al comienzo del conflicto. Pero, para ELA, tan importante como éso es analizar el cómo se ha conseguido. El acuerdo solo ha sido posible gracias a la organización y a la movilización de las y los trabajadores. Un trabajo sindical liderado por ELA en todo momento que demuestra que sólo donde nuestro sindicato está presente y tiene fuerza es posible mejorar las condiciones laborales. Zorionak!**

El 10 octubre se firmó el acuerdo con las patronales Kristau Eskola y AICE-IZE en torno al convenio colectivo para las y los trabajadores de los centros de Iniciativa Social de la enseñanza concertada de la CAPV. Un gran acuerdo que sólo ha sido posible gracias al gran trabajo organizativo de ELA, que cuenta con una amplia mayoría en el sector –58% de representación–. (Los sindicatos CCOO, STEE-EILAS, LAB y UGT también han firmado el acuerdo).

Xabi Irastorza, responsable de ELA en enseñanza, destaca que estamos ante un gran acuerdo. "Se recupera íntegramente el convenio vigente, desactivando el recurso presentado por las patronales ante el Tribunal Supremo; se aplicarán las tablas salariales del convenio en el plazo más breve posible, y siempre antes de 2015; se reconocen y detallan mecanismos de pago de la deuda acumulada; se equipara al personal Especialista de Apoyo Educativo al 95% del salario de la enseñanza pública; se ha logrado un compromiso de estabilidad en el empleo; se limita la reforma laboral, recogiendo, por ejemplo, la ultraacitividad hasta la firma de un nuevo convenio... Es evidente, por lo tanto, que tenemos muchos motivos para estar muy satisfechos".

### AHORA, A APLICAR LO FIRMADO

Una vez firmado el acuerdo, Irastorza destaca que el siguiente e inmediato reto es conseguir que se aplique cuanto antes lo firmado en todos los centros de Iniciativa Social de la CAPV. "Ya hemos firmado el acuerdo; ahora hay que aplicar cuanto antes lo firmado en todos los centros. Hemos tenido que trabajar y luchar mucho para llegar a esta situación, por lo que estamos siguiendo muy de cerca en todos los centros que se aplique cuanto antes el acuerdo".

El 10 de octubre finalizó –y muy bien– una lucha que ha durado cuatro años. "Se ha demostrado –concluye Irastorza– que donde hay afiliación, organización y representación sindical de ELA es posible firmar buenos convenios. Tenemos que aprovechar esta coyuntura para mantener –y en la medida de lo posible aumentar– nuestra representación en este periodo concentrado de elecciones sindicales".

## "IKASTOLETAN ZERGATIK EZ DA POSIBLE?"

Itunpeko irakaskuntzako Gizarte Ekimenean lortutako akordio bikainaren ondoren, agerikoa da egin beharreko galdera: zergatik bertan posible izan dena ez da posible Ikastoletan? ELAko irakaskuntza arduradun Xabier Irastorzak nabarmentzen duenez, ELAk Ikastoletan ez du Gizarte Ekimenean sinatu ez den ezer eskatzen.

"Ezin dugu ulertu zergatik Ikastoletako langileek murrizketak sufritu behar dituzten eta ezin dituzten eduki Gizarte Ekimeneko langileen baldintza eta eskubide berdinak".

Egoera honen aurrean, Irastorzak LABen jarrera salatzen du. "Ezin dugu ahaztu LABek babesa ematen diola Partaidek inposatzen dituen murrizketei. Egun LABek gehiengoa du Ikastoletan –%64 eta ELAk %36–, eta agerikoa da langileek bizi duten egoeran duen erantzunkizuna. Gizarte Ekimeneko akordioak agerian uzten du LABek gai honetan darabilen demagogia: batean balekoa dena bestean ez dute sinatu nahi. Ez dugu ulertzen jarrera hori".

### Gune plataformak Europar Batasuna eta Ameriketako Estatu Batuak negoziatzen ari diren hitzarmen horren kontrako hainbat ekimen antolatu zituen urriaren 10ean

# TTIP GELDITU DEZAGUN!



Gune plataforma osatzen duten sindikatu eta gizarte-eragileek Merkataritza eta Inbertsiorako Hitzarmenaren (ingelesez TTIP) aurkako hainbat ekimen antolatu zituzten urriaren 10ean, hitzarmen honen aurka Europa osoan deituta zegoen mobilizazio egunaren deiari erantzunez. Ekitaldi nagusiak Bilbon eta Iruñean izan ziren.

Bilbon lehendabizi hitzaldi bat antolatu zen Yohn Jauregian –La Bolsa–. Bertan TTIP zer den, zein ondorio izango dituen eta hitzarmena bertan behera gelditzearen garrantzia azpimarratu zen. Hitzaldian, besteak beste, ELAko nazioarteko arduradun Laura Gonzalez de Txabarri mintzatu zen. "Akordioa multinazional handien mesedetan dago pentsatua, eta horiek lan-baldintzak oztopo bezala ikusten dituzte. Horregatik oso kezkatuta gaude; ziur gaude hitzarmena bere horretan onartuz gero gure lan-eskubideen aurkako eraso larria izango dela".

Gonzalez de Txabarriren ustez hitzarmenak soilik merkataritza interes handiak babesten ditu, ororen gainetik inbertitzaileak eta kapitala jartzen dituelarik. "Demokraziarentzat eraso larria da. Inbertitzaileek eta kapitalak zigorgabetasun osoa izango lukete, eta gatazka bat sortuz gero tokian-tokiko langileen eskubideen gainetik egongo lirateke".

ELAko nazioarteko arduradunaren ustez prozesu hau neoliberalismoaren aurkako borrokan indar berri eta eraginkorrak lortzeko baliatu beharra dago. "Hau guztia aukera bat bezala ikusi beharra dago. Politika neoliberalen gehiegikeria oso agerian gelditzen da, eta hori baliatu beharra dago hitzarmen honen kontra gaudenon kritikak lau haizetara zabaltzeko. Klase proiektu bat da. Ameriketako Estatu Batuetako eta Europako elite ekonomikoak eta politikoak batera daude proiektu honetan; gu, gehiengoa, proiektu honen bestaldean gaude, bai Ameriketako Estatu Batuetan eta bai Europan".

Laura Gonzalez de Txabarrirekin batera Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle Juan Hernandez eta EHNE-Bizkaia sindikatuko Andoni Gartzia mintzatu ziren. Hitzaldiaren ostean elkarretaratzea egin zen Arriaga Plazan, eta bertan igarotzen ziren lagunei TTIP-aren aurkako propaganda banatu zitzaien.

Iruñean ere hainbat ekimen egin ziren. Esaterako, –argazkian jasotzen den bezala– herritarren artean TTIP zer den zabaldu asmoz kalejira informatiboa egin zen. Bertan hitzarmen honen aurkako propaganda ugari banatu zen Iruñeako karriketan.

# LABURREAN / BREVES

## • ELAk bere aitorpena eta esker ona luzatu nahi dio Lokarriri

Lokarri herri mugimenduak bere ibilbidea bukatutzat ematen duela iragarri zuen urriaren 9an. Iragarpen horren aurrean ELAk publiko egin nahi du bere aitorpena eta esker ona. Komunikazio arduradun Patxi Agirrezabalak nabarmentzen duenez, txalogarria da Lokarrik gure herrian egindako lana. "Oso zailak ziren testuinguruetan elkarte honek lan egin du bake ezenatoki batetara eramango gintuzkeen elkarrizketa eta ulermen bideak garatzearen alde; gizartea mobilizatu du; bakearen kultura sustatu du herri honetan; eta arrakastaz lortu du gure gatazken konponbidean nazioarteko eragile garrantzitsuak inplikatzea".

Horregatik sindikatu osoaren partez gure eskerrik onenak luzatu nahi dizkio Lokarriri. "Gure esker onak zerikusia du gure sindikatuak urte guzti hauetan zehar Lokarrirekin mantendu duen aldebiko harremanean. Harreman adeitsua izan da, errespetu handikoa, leiala eta, egoerak hala eskatu duenean, zuhurra. Lokarriko bazkide eta kolaboratzaile guztiei gure desiorik onenak opa dizkiegu. Espero dezagun bere emari militante eta antolatzailea, eta euren ideien eta proposamenen ondarea, gure gizartean leku egokia topa dezatela".

## • ELAk bat egin zuen Bateragune auziagatik preso dauden pertsonen askapena exijitzeko antolaturiko manifestazioarekin

Urriaren 11n ehunka lagun bildu ziren Elgoibarren *Bateragune auzia* dela-eta preso dauden lagunei –Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Sonia Jacinto, Miren Zabaleta eta Arkaitz Rodriguez– elkartasuna adierazi eta lehenbailehen askatu ditzatela exijitzeko. ELAk bat egin zuen *Arnaldo Askatu! Politika Askatu!* plataformak deitutako ekimenarekin, eta sindikatuko ordezkaritza zabala bertan izan zen, Adolfo Muñoz idazkari nagusia buru.

## • El Parlamento de Navarra admite a trámite la ILP presentada por ELA para luchar contra la subcontratación

El pleno del Parlamento de Navarra admitió el 9 de octubre a trámite la Iniciativa Legislativa Popular que viene desarrollando ELA sobre las condiciones laborales de las y los trabajadores que trabajan bajo la figura de la subcontratación para la Administración Pública. La admisión a trámite ha sido posible gracias a los votos favorables de PSN, Bildu, Izquierda-Ezkerra, Aralar y Geroa Bai –tanto UPN como PP votaron en contra–. ELA valora muy positivamente esta noticia que permitirá que el debate sobre la precariedad laboral en las subcontratas públicas entre en el Parlamento de Navarra. Hay que destacar que más de 14.000 navarros y navarras han firmado en favor de la ILP.

## • Milaka lagun LOMCE-ren aurka eta hezkuntza eredu propio baten alde

Milaka lagun atera ziren urriaren 11n Gasteiz, Donostia, Bilbo eta Iruñeako kaleetara LOMCE legeari ez esateko eta herri honek behar duen hezkuntza sistema Euskal Herrian eraiki behar dela aldarrikatzeko. Hezkuntzaren inguruko hainbat eragilek –tartean ELA– deitutako mobilizazioetan argi gelditu zen hezkuntza eredu propio baten aldeko aldarria.



## • TEPSAko langileek hilabete daramate greba mugagabean

TEPSAko –Terminales Portuarias SL– langileak greba mugagabean daude irailaren 9az geroztik. Grebaren helburua enpresak Zierbenako lantokian egindako zazpi kaleratzeen aurka protesta egitea da. Kaleratze horiekin batera kontutan hartu behar da zuzendaritzak Bartzelona, Tarragona eta Valentziako lantokietan 32 lagun kaleratzeko asmoa iragarri duela. ELAk gogor salatu nahi du TEPSAren jarrera. Agerikoa da kaleratze hauek helburu bakarra dutela: langileek soldaten murrizketak eta lan-baldintzen okertzea onartzea. Zentzu honetan, kontutan izan behar dugu azken urteetan enpresa honek dirutza irabazi duela, eta 2009-2012 urte bitarteetan 10 milioi eurotako dibidenduak banatu zituela.




## • Continúan los paros, huelgas y movilizaciones en Bizkaibus

Iñaki San Andrés, responsable de ELA en Bizkaibus, valora positivamente la respuesta dada por la plantilla de Bizkaibus a las movilizaciones convocadas para exigir a la Diputación de Bizkaia que cumpla el acuerdo que el año pasado ella misma firmó. "Tras ver que la Diputación no cambiaba de actitud tras las manifestaciones y la jornada de paro del 3 de octubre, hemos realizado hasta la fecha tres jornadas de huelga –6, 9 y 15 de octubre–. Además se han convocado huelgas para los días 17, 20, 21, 23 y 24 de octubre".

"Hasta ahora –continúa– las jornadas de huelga no pueden ser más exitosas: los paros están siendo totales, sólo se cumplen los servicios mínimos. Esto significa que las y los trabajadores estamos firmes en nuestra reivindicación: que se cumpla el acuerdo firmado el 4 de octubre del 2013 que, entre otros aspectos, garantizaba una subrogación real de las plantillas de Bizkaibus, obligaba a mantener las condiciones de trabajo, imponía la ultraactividad e impedía la inaplicacion de los convenios, o, lo que es lo mismo, se evitaba que la reforma laboral entrara en Bizkaibus. Además, en caso de que la Diputación continúe incumpliendo lo firmado, la huelga será indefinida a partir del 27 de octubre".

## • Contra el cierre de la planta de Zardoya-Otis de Mungia

ELA denuncia que la dirección de Zardoya-Otis –empresa dedicada al sector de la producción de elevadores– pretende deslocalizar la producción de esta planta por causas organizativas y destruir 80 puestos de trabajo. ELA quiere recordar que estamos ante una empresa que lleva décadas acumulando importantes beneficios económicos en Euskal Herria, y que ahora pretende llevar la producción de la planta de Mungia a diferentes plantas del Estado.

## • Semana internacional contra la deuda ilegítima

El 15 de octubre de 1987 fue asesinado Thomas Sankara, presidente de Burkina Faso. Sankara se negó tanto a que su país pagara deudas soberanas como a aceptar las políticas forzosas de las Instituciones Financieras Internacionales, motivo por el cual fue asesinado. Coincidiendo con su asesinato, una vez más, diferentes colectivos sociales de todo el mundo han organizado en octubre una semana internacional de movilización contra la deude ilegítima. ELA también se ha sumado a esta semana, y, entre otros actos, el 13 de octubre celebró una concentración bajo el lema *No al pago de la deuda ilegítima*.




## • Grebak eta lanuzteak Osakidetzan

Osakidetzan ordezkaritza duten ELA, SATSE, LAB, SME, FFHE, CCOO, UGT eta ESK sindikatuek grebak eta lanuzteak iragarri dituzte datozen asteetarako. Mobilizazioen helburua Osakidetzako zuzendaritza ezartzen ari den murrizketen aurka protesta egitea izango da. Azaroaren 6an lau orduko lanuzteak egingo dira txanda bakoitzean; azaroaren 13an egun osoko greba egingo da Arabako zentro guztietan, azaroaren 20an Gipuzkoakoetan eta 27an Bizkaikoetan. Abenduaren 4an, berriz, egun osoko greba orokorra egingo dute hiru herrialdeetako zentro guztietan.

Bestalde, ELA-Osakidetzako arduradun Pello Igeregiren ustez Osakidetzako zuzendaritzak iragarri duen Lan Eskaintza Publikoa irrigarria da. "Osasun sailburuak propaganda egin aurretik 2011ko Lan Eskaintza Publikoa behingoz ebatzi beharko luke. Egindako proposamenari buruz, onetik ezer gutxi. Asko jota, 350 plaza eskainiko dira. Ondorioz, behin-behinekotasuna 700 langileetan haziko da. Datu horiekin ia 9.000 langilera iritsiko da behin-behinekotasuna; ETTek bakarrik daukate Osakidetzaren mailako prekarietatea".



## • "El acuerdo para el 'diálogo social' en Navarra no es sino un rescate encubierto para UGT, CCOO y CEN"

Mitxel Lakuntza, responsable de ELA en Navarra, denuncia que el acuerdo alcanzado el 3 de octubre por el Gobierno de Navarra, los sindicatos UGT y CCOO y la patronal CEN para "la reactivación económica y el empleo" es un nuevo fraude para la clase trabajadora. "El acuerdo, entre otros puntos, recoge la creación de un Consejo de Diálogo Social, que contaría con una partida económica para su funcionamiento. Esto no es más que un plan de rescate para los firmantes, cuyo único objetivo es llenar sus arcas de dinero público. El diálogo social se ha pervertido hasta convertirlo en Navarra en un auténtico despilfarro destinado a la financiación, ya ni siquiera encubierta, de algunas organizaciones afines al régimen".

## • ELA se suma a la campaña internacional *La fatiga mata*

ELA se ha sumado a la campaña que bajo el lema *La fatiga mata* ha organizado la Federación Internacional del Transporte. Esta campaña pretende concienciar de los riesgos que supone la permanencia de jornadas de 10 e incluso 12 horas al volante, la necesidad del reconocimiento de las enfermedades profesionales y el anticipo de la edad de jubilación.

## ELA-Osakidetza denuncia la indefensión de la plantilla y la negativa del Comité Corporativo de Seguridad y Salud Laboral de Osakidetza a reunirse con los sindicatos

# "NO HAY SUFICIENTE INFORMACIÓN Y FORMACIÓN ANTE UN POSIBLE CASO DE ÉBOLA"



El ébola es triste y preocupante actualidad estas semanas tras el contagio de una auxiliar de enfermería en Madrid, el primer caso detectado en Europa. Ante la situación creada, los y las profesionales de ELA han denunciado la negativa del Comité Corporativo de Seguridad y Salud Laboral de Osakidetza a realizar una reunión urgente con los sindicatos para aclarar la situación actual, así como la negativa a asumir ninguna de las peticiones realizadas en agosto por el sindicato en materia de seguridad y salud laboral.

Tal como destaca ELA-Osakidetza, "en la CAPV hemos tenido 4 casos sospechosos que, afortunadamente, no han sido confirmados, pero queremos que se tomen todas las medidas necesarias para que no se repita aquí lo ocurrido en Madrid". Estos profesionales no pretenden crear alarma social, sino proteger a los trabajadores/as del sector y al conjunto de la sociedad vasca. "Seguimos confiando en nuestro sistema de salud y en sus profesionales. Sabemos que ante un caso aislado el riesgo de propagación será muy pequeño, pero entendemos que la actuación de Osakidetza es mejorable".

En agosto –mes en el que la Organización Mundial de la Salud declarara la alarma internacional– ELA denunció la falta de información a las y los profesionales acerca del protocolo a seguir y solicitó, al mismo tiempo, que en el mismo se añadieran una serie de sencillas medidas para evitar su propagación, propuestas que han caído en saco roto. "A día de hoy, según el protocolo de Osakidetza, un presunto enfermo/a de ébola puede permanecer en una sala de espera de un Centro de Salud, PAC o en las Urgencias, con los riesgos que eso supone".

ELA denuncia, asimismo, que Osakidetza no ha formado a todos y todas las profesionales que se puedan encontrar ante un caso sospechoso. "Simplemente se ha enviado el protocolo por correo electrónico y la única práctica de colocación del EPI (equipo de protección individual) consiste en la visualización de un video de cómo se coloca y retira el mismo. "Cuando hablamos de formación no nos referimos sólo a información sino también a adiestramiento, es decir, práctica en colocación y retirada del equipo".

Prueba de esa improvisación, según se denuncia desde ELA-Osakidetza, es que no todos los EPI que se han enviado a los centros tienen el nivel de protección requerido para un caso de ébola; o que no en todos los PACs, Centros de Salud ni Hospitales se han realizado reuniones para explicar cómo actuar en caso de ébola. Asimismo, tampoco se ha negociado con los sindicatos los criterios por los que se va a decidir las personas que van a atender a los pacientes sospechosos. "Eso sí, Osakidetza no ha admitido que se realice mediante personas voluntarias en la medida que sea posible", han criticado.

Finalmente ELA-Osakidetza solicita al Gobierno Vasco una una mayor implicación en África. "Muy probablemente el pánico en Europa pasará y se controlará la infección. Mientras tanto en África la gente seguirá muriendo. Pedimos al Gobierno Vasco que traslade al Consejo Interterritorial una propuesta de acción sobre el terreno y no tengamos que volver a arrepentirnos de nuestra inacción".

# ARKEMAREN ITXIERAREN AURKA

Urriaren 11n mila lagun inguru bildu ziren Bilbon eguerdian bi aldarrikapen nagusi egiteko: Arkema ez dadila itxi exijitzea eta Enkaterriek eta Kadaguak etorkizuna badutela aldarrikatzea. Irailaren 9an Arkema Quimika enpresak Alonsotegin duen lantokia ixteko asmoa duela iragarri zion enpresa-batzordeari. ELAk Arkeman duen atal-sindikalak azpimarratzen duenez zuzenean 60 langilek dihardute bertan lanean; gainera, beste hainbeste dira zeharka enpresa honen inguruan lan egiten dutenak.

"Helburua enpleguak mantentzea da. Alonsotegiko lantokia guztiz bideragarria da, urtez urte sortzen dituen irabaziei erreparatu besterik ez dago".

Administrazio publikoak ere gogoan izan zituzten Bilboko elkarretaratzean. "Erakunde publikoei dei egin nahi diegu multinazional honen erabakiaren aurka eta enpleguaren alde borroka dezaten. Herri-erakundeen inplikazioa ezinbestekoa izango da arazoari aurre egiteko. Ez dezagun ahaztu itxierak Euskal Herriko industria-sare osoari eragingo diola, ez soilik Alonsotegiko lantokiari. Gainera, Enkarterriak eta Kadagua bereziki kaltetuak izaten ari dira azken urteetan. Eskualde oso baten aldeko borrokan ari gara, finean".




**www.ela-sindikatua.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.eus

Franqueo concertado
nº 08/207